



Buruntzako gurutzea eraisteko saiakera

1939an altxa zuten gurutzearen oinarrian txikizioa eragin dute, azken egunetan. / 4-5

Kasu positiboak: Andoainen 2.000; Urnietan 1.000

Koronabirusak eragindako datu guztien artean, bada nabarmendu beharrekoa: aurreko asteko positiboekin, Andoain eta Urnietan zenbaki borobiletara iritsi dira. / 3



"Migratzaileak"
ikuskizunaren inguruan
saio irekia eskainiko du
Aukeran Dantza
Konpainiak / 8-9



Herriko argazkizaleekin
osatutako Andoaingo
Udal egutegia aurkeztu
dute. **Dagoeneko**
eskuragarri dago / 10-11



Jamones Rosco
Urnietako enpresa,
elikagaien sektorean
prestigio handiko
marka / 6-7

Arropa eta osagarriak



Kale Nagusia, 6. Andoain. 943 591 224

**Eguberri
eta Urte
berri
on!!!**



GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

IPAR HAIZEA ANDOAIN


Olentzerori gutuna

Urtero bezala, hementxe gaude Ipar Haizeako kideok gure desioak eskatzeko prest.

Urte gogorra izan da denontzat, baina gu gure lanarekin jarraitzen saiatu gara, ingurugiroa eta osasuna orain eta etorkizun batean bermatzeko asmoz.

Oso triste gaude aurtengo Udaleko aurrekontu parte-hartzailean gertatutakoarekin, izan ere hasierako baldintzak betetzen ez zituen proposamen batek aurrera egin zuen, bai, bai, bertan errefusaren irekiera mugatzen duen txartela eta organikoaren edukiontzia ere zabaltzen duena kentzea eskatzen zen eta adituek ingurugiroaren kaltegarria izango zela esanda ere, politikari batzuek bozkatzeko proposamenen artean jarri zuten... Eskerrak Andoainen oraindik jende arduratsua geratzen den eta ez zen aukeratua atera...

Beraz, gure eskaera honako hau da: hondakinak ondo be-



Zabor poltsiak zaborrontzitik kanpo, Zumea plazan. AIURRI

reizten eta txartela erabiltzen duten herritarrei hobariak handitzea eta txartela kentzea ahalbidetu nahi duten guztiei benetako ikatza jartzea, ez jaten den gozo horietakoa... Batzuetan zintzoegia zara Olentzero!!

Muxu potolo bat.

POSTONTZIA

RUBEN GUREKIN PLATAFORMA ANDOAIN

Ez du etenik

2020. urtea amaitzear zela, albeste batek gogor kolpatu gintuen. Ruben Gelbentzu andoaindarren kontrako auzi berri bat ireki zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak. Ordutik hona baldintzapeko askatasunean dago eta kasua instrukzio fasean da. Urte honetan zehar Rubenen defentsa, lanean aritu da beharrek frogak aurkezten. Hori gutxi balitz, orain, kausa berri bat ireki diote. Berriz ere, 2002. urteko ekintzak leporatzen dizkiote. Hori dela eta, abenduaren 27an, goizean, Espainiako Auzitegi Nazionalan deklaratu behar du. Horrek espetxeratua izateko duen arriskuarekin. Aurre-

"GENBELTZU ETA LIZARRIBAR AUZITEGI NAZIONALEAN DEKLARATZERA DEITU DITUZTE"

ko kausetan gertatu den bezala, Jon Lizarribar urnietarra ere deklaratzera deitua izan da. Egoe- ra jasangaitza da. Urte luzez Ruben eta Jon jasaten ari diren jazarpena, bere horretan zigor gogor batean bilakatu da. Eten- gabe susmopean, baldintzapean aske, inolako bizimodurik antolatze- ko aukerarik gabe. Hori dela eta, datorren abenduaren 18an, 12:30tan hasita, jende katea egingo dugu Zumea plazatik, Bastero plazaraino. Bertan, batzar informatiboa egingo dugu. Andoain- dar guztiei bertaratzeko deialdia luzatu nahi diegu. Rubenen eta Jonen kontrako jazarpena salatu eta elkartasuna adierazteko.

"JENDE-KATEA DEITU DUGU ZUMEA PLAZATIK BASTERORA, LARUNBAT HONETARAKO"

POSTONTZIA

SARE ANDOAIN, URNIETA

Deialdiak

Abenduaren 26an, Hego Euskal Herriko lau hirietan mobilizazioak deitu ditugu. Gipuzkoan bizikleta martxa egingo da 12:00etan, Martuteneko espetxetik irtenda. Eta ondoren, 13:00etan, manifestazioa Donostiako epaitegitik. Guztiak ere mezu argiarekin: "Ettxerako Bidean", hau da, euskal preso guztiak Euskal Herrira hurbiltzeko eta gradu-progresioa aplikatzeko aldarriarekin. Izan ere, espetxe-politikari dagokionez, ematen ari den aldaketa ontzat jo arren, oraindik indarrean da urruntze-politika.

2022ko urtarrilaren 8an "El-karbizitarako. Bakera. Etxerako bidean" lelopean euskal preso- en alde Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatu dute Urnietako eta Andoaingo Sarek.

Izen-ematea: Irunberri elkar- tea, Andoainen. Eta Ezeiza mer- tzeria, Urnietan.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko
harpidetza-saria 40 eurokoa da.
Urnietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta
merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
[@aiurri](https://www.instagram.com/aiurri)

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetzak:
Garbiñe Ugartemendia.
idaizaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).
Diseinua: Goiñena Komunikazio Taldea.
Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA:

ALIATUAK:

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

ZIURTAGIRIA:

BABESLEAK:
Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

andoainDARRA
euskaraz

Jon Ander Ubeda ANDOAIN


Positibotasun gehien sortu duena da seigarren olatua, honezkerok. Eta horrek eragin zuzena du intzidentzia-tasa metatuan, ospitaleratzeetan eta zainketa berezien unitatean. Birusaren oldarraldiaren egur bereko ez-palak, guztiak. Aste honetan 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua inoizko daturik handiena ematera iritsi da. Euskadiko tasa 1000ra gerturatzen ari den bitartean, Gipuzkoakoak 1400eko langa gainditu du. Horrek eragin zuzena dauka zainketa intentsiboen unitateetako eta ospitaleetako gelen okupazioan. Hamabost eguneko epean zainketa berezien unitatea bikoiztu egin da, hots, 47 lagunetik 91ra igo da. Ospitaleratzeak ere nabarmen igo dira denbora-tarte berean, 207tik 338raino. Ostegun honetako boletinean ez da hobekuntzarik aurreikusten. Datozen asteetan positiboaren kopuruak markak hausten jarraituko duela dirudi. Eta, ondorioz, intzidentziak gora egiten jarraituko du, baita zoritxarrez ere ospitaleetako eta UCI-etako okupazioak ere. Olatuak ez du goia jo oraindik.

Zenbaki borobilak

Koronabirusak ez du atsedenaldirik ematen, eta azken asteotan biderkatu egin dira kasuak. Udazkeneko oldarraldiarekin Andoaingo eta Urnietako positibotasun-tasa zenbaki borobiletara iritsi da

Atal berezia


Askotxok badakiten arren, komeni da gogora ekartzea Aiurri.eus gunean gai honi buruzko atal berezia dugula.



2.000 positibotik gora Andoaian

- Positiboak hasieratik: 2.080 (biztanlegoaren %13,88a).
- Azkeneko asteko positiboak: 122 (aurreko astean 96).
- Intzidentzia-tasa, 14 egunetan: 1.454,50 (aurreko astean 1.621,30).
- Intzidentzia-tasa, 7 egunetan (x2): 1.627,97 (aurreko astean 1.281,02).

Iturria: Irekia, Eusko Jaurlaritza. Datuen lanketa: C-19 Analisia. Data: 21/12/13.



1.000 positibotik gora Urnietan

- Positiboak hasieratik: 1.010 (biztanlegoaren %16,27a).
- Azkeneko asteko positiboak: 36 (aurreko astean 25).
- Intzidentzia-tasa, 14 egunetan: 982,44 (aurreko astean 724,75).
- Intzidentzia-tasa, 7 egunetan (x2): 1.159,61 (aurreko astean 805,28).

Iturria: Irekia, Eusko Jaurlaritza. Datuen lanketa: C-19 Analisia. Data: 21/12/13.

betiON
GARA



betiON, Euskadiko Telelaguntza Zerbitzu Publikoaren medaila gorriak segurtasuna eta lasaitasuna eskaintzen digu eguneko 24 orduetan.

Argibide gehiago hemen:

www.euskadi.eus/betion

900 851 600

012 Zuzenean

Euskadi, mugorik gabe



Xabier Lapitz: Kazetaria
Itziar Alzpur: Aktorea

Gurutzea frankistek zutitu zuten

Buruntzako gurutzea 1939ko abuztuan zutitu zuten, 1936ko kolpe militar faxistan parte hartuz hil ziren matxinatuak omentzeko asmoz. Falange erakundearen ekimena izan zen, eta Andoaingo Udalaren babesa izan zuen

Xabier Lasa ANDOAIN

Gurutzea jartzearen ekimenaren arrastoa segi dezakegu, Andoaingo Udal Artxiboko 1939ko udalbatzen liburua eta *El Diario Vasco* egunkaria irakurrita.

1936ko uztailaren 18an, hainbat militarrek, indar kontserbadore eta monarkikoen eta Elizaren Jerarkiaren babesarekin, kolpe militarra bultzatu zuten zilegitasun demokratikoa zeukan Errepublikaren aurka. Hiru urteko gatazka belikoaren ostean, 1939ko apirilean, Francisco Franco *Generalísimo*ak garaipen militarra aldarrikatu zuen ofizialki.

Apirilaz geroztik, frankistek “gorri” eta “separatisten” aurkako “gurutzada nazional-katolikoan” hil zirenen aldeko makina bat omenaldi antolatu zituzten, (eta era guztietako sinbologia (ikurrak, plakak, gurutzeak...) ipini zuten nonahi. Gipuzkoan, gurutze ugari zutitu zituzten 1936ko uztaila-abuztuan borrokaldiak gertatu ziren parajeetan; hala nola, Buruntza, Belabieta, Belkoain, Morkaiko, Pagoeta, Arrate, Izuzkiza...

Eskualdean, zehazki, hiru gurutze ipini zituzten: Belabieta (1939/05/07), Buruntza (1939/08/27) eta Belkoain (1939/09/24).

Buruntzakoari lotuta, gogoratzekoa da 1936ko abuztuko bigarren hamabostaldian bertan zein Belkoainen gertatu ziren borrokaldiak; Nafarroatik abiatuta Gipuzkoako zati bat –Andoain tartean– mendean hartu zuten indar armatuak alde batean, eta bestean, Errepublikaren aldeko defentsa batzordeak. Bigarrenengoak Buruntzako defentsa-lerroan gotortu ziren, matxinatuei Donostiarako ibilbidea oztopatzeko.

Azkenik, abuztuaren 31n armamentuz eskas zebiltzan Errepublikala zaleek atzera egin behar izan zuten, eta matxinatuek Buruntzako gaina osorik zapaldu ahal izan zuten. Herriak konkistatu ahala, matxinatuek makina bat eraiketa, atxiloak, ile-mozte eta abar burutu zituzten horietan.

Udalbatzetan erabakiak

Andoaingo Udalbatzen aktetan bi alditan aipatzen da Buruntzan gurutzea jartzearen ideia. Lehen, 1939/07/26an. Udalbatzak baiezkota ematen dio FET y de las JONS erakunde falangistaren gailurraren aldeko baimen-eskaerari; aldi berean, Gipuzkoako baso-bulegoari jakinaraztea erabakitzen du. Horretarako,

udal korporazioak bat egiten du Falangeak azaldutako arrazoia: *“En memoria de los caídos en esta Santa Cruzada que gracias a Dios y a nuestro invicto Caudillo terminó felizmente”*.

Bigarren aipamena, 1939/08/21ean dator. Udalbatzan Gipuzkoako baso-bulegoaren agiria jakinarazten da: gurutzea erakitzeko baimena berrestez gain, poza agertzen du ekimenagatik.

Prentsa kronikak

Diktadurak zentsura zorrotza ezarri zuen, eta Gipuzkoan soilik hiru egunkariri eman zien baimena argitaratzeko, *El Diario Vasco*, *La Voz de España* eta *Unidad-i*. Lehenbizikoan, 1939/09/01ko zenbakian, C ezinez sinatzen duen Andoaingo kronikalariak Buruntzako borrokaldi sonatua gogoratu zuen, eta ondoren, zera gaineratu: *“(…) En esta cruenta batalla tuvimos que lamentar la baja de algunos de los nuestros, de ahí que el Ayuntamiento con la cooperación del vecindario ha puesto en práctica el deseo de honrar a los Caídos, a los heroicos y valientes soldados que sucumbieron en defensa de Dios y la Patria, dedicando una cruz que perpetúa el piadoso recuerdo, mediante*



Buruntzako gurutzea, eraisten saiatu ostean. AIURRI

una suscripción popular, encabezada por el Ayuntamiento.

El domingo se celebró en el monte Buruntza una misa de campaña asistiendo autoridades y numeroso público; a continuación se trasladaron a la parte más elevada del monte procediéndose a la bendición de una cruz monumental seguida de un responso rezado por el eterno descanso de los que ofrecieron su vida en aras de la Patria, caídos en el Buruntza! ¡Presentes!”

1939/10/08an, egunkari berean, kirol orrietan mendiari eskainitako atalean, A ezinez sinatu zuen kazetariak Belkoain eta Buruntzako gurutze jarri berriak izan zituen aipagai (Buruntzako gurutzearen argazkiarekin ilustratzen du kronika):

“Nuevas cruces simbólicas en nuestras cumbres. Andoain, cuna

del célebre jesuita Padre Larra-mendi, acaba de inaugurar su segunda cruz simbólica en recuerdo de la pasada gesta, en la que sus hijos participaron tan brillantemente no sin haber rendido un inapreciable tributo de sangre, cuya estela quedará perenne entre sus familiares y amigos, y aún en el pueblo todo, que próximamente les dedicará como todos los demás de España, un monumento que perpetúe y recuerde a las generaciones venideras los nombres de los que dieron su vida por Dios y por la Patria.

Dos grandes montañas-Belkoain y Buruntza- dominan la simpática e industriosa villa andoaingarra, y está aún en la mente de todos, las luchas y víctimas que costó echar a los rojos de ambos formidables baluartes y estraté-



OGIA EZ DADI LA FALTA
... ezta euskara ere!

Haurrak euskaraz murgiltzeko eta hizkuntzaren transmisioa egiteko gonbita Andoaingo familiei



gicas atalayas, que en poder de los nacionales, hubieran constituido inexpugnables defensas, conseguidos cuyos objetivos, fue ya fácil el adentrarse hacia el Estenaga y el Andatza y descender hacia los fértiles valles de Lasarte y de Usúrbil, amenazando a los marxistas el corte de su única retirada a través del Mendizorrotz, utilizando la carretera a la que tan febrilmente trabajaron e hicieron trabajar a tantos infelices, en su obsesión de continuarla hasta Orio, pero que nuestro rápido avance no les dio tiempo de terminar...

Todavía hace un mes -el día tres del pasado septiembre- se inauguró una magnífica cruz de diez metros de altura en la cumbre del Buruntza, no lejos de la pintoresca ermita de San Roque, cruz que por sus dimensiones y la situación privilegiada del Buruntza -magnífica peana del siglo de nuestra redención- se vislumbra de un radio de muchos kilómetros. Pero no contentos con ello, han querido también los vecinos del pueblecito de Aduna y de Soravilla (barrio de Andoain), erigir otra no menos magnífica



Frankistak, soldaduak eta herritarrak, Buruntzako gailurrean 1938/08/28an, bere "konkistaren" 2. urteurrena ospatzen. Gurutzea hurrengo urtean ipini zuten. JOSE ANTONIO URGOITIA

cruz sobre una de las cumbres del Belkoain, de unos ocho metros de altitud, cuya cruz se inauguró brillantemente el domingo día 24 del pasado mes de septiembre. Y que nosotros sepamos ha sido Andoain el único pueblo que en menos de un mes, ha levantado dos cruces gigantescas, sobre las dos principales montañas que la

dominan, dando un magnífico ejemplo a otros pueblos que aún no se han estrenado. Las cruces del Buruntza y Belkoain, juntamente con las de Morkaiko (Elgoibar), Uzturre (Tolosa) y Satui (Legazpi), son actualmente las cinco cruces monumentales erigidos en montañas guipuzcoanas, y que con sus

brazos extendidos mirando hacia el Cielo, parecen demandar protección y amparo para los habitantes de los pueblos que se extienden a sus pies y aún del resto de la provincia, y que no se repitan en su suelo, las luchas fratricidas de que fue escenario ahora hace tres años. Esperamos que no transcurrirá mucho tiem-

po sin que nos enteremos de la construcción de alguna otra cruz en la cumbre de alguna de las muchas montañas guipuzcoanas que fueron teatro de cruentas luchas con motivo de su reincorporación al territorio nacional; y por nuestra parte muy gustosos les dedicaremos algunas líneas en esta sección montañera al igual que lo hemos hecho con las dos cruces erigidas en las dos montañas-centinela del simpático pueblo de Andoain". Buruntzako gurutzeari, plaka bat erantsi zioten. Hona zekarren leloa, letra larriz: "Cruzados de la Fe y la Patria. A vuestra Santa Memoria consagra el pueblo de Andoain, esperanza de nuestra redención. 1936-1939". 60ko hamarkadan ezezagunek txikitu egin zuten plaka hori. Bestalde, informazio gisa ere aipatu beharra dago Buruntzako parajearen dagoen San Roke ermita 1910 urte aldera eraiki zutela (Iturria: Aguirre, Antxon: Las ermitas de Andoain. Leyçaur 2 aldizkaria, 1992. 104. or). Ikerketa lanean aipatzen denez, ermita jarri zen lekuan lehendik bazen gurutze bat.

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

TicketBAI

Etorkizunerako prestatzen.

2022an, TicketBAI Gipuzkoara iritsiko da. Etorkizunerako prestatzen gaituen online fakturazio-sistema berria.

Anima zaitetz zure enpresan edo negozioan borondatezko epean ezartzera eta ezagutu kenkariak eta abantailak.

Informa zaitetz

- gipuzkoa.eus/ticketbai
- Aurrez aurreko informazioa (hitzordua)
- 943 113 000
- ticketbaikontsultak@gipuzkoa.eus

TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA
gipuzkoa.eus/ticketbai



Carlos eta Xabi Roscok aitaren negozioari jarraipena eman diote. AIURRI

Urnieta, urdaiazpikoaren herria

CARLOS ETA XABI ROSCO JAMONES ROSCO ENPRESAKO ARDURADUNAK

Aitak hasitako negozioa dute ofizio eta afizio: urdaiazpiko salmenta. Artisan-lana egiten dute, 30 lagunek enpresan, eta estimazio handia dute bezeroengan

Andoni Urbistondo URNIETA

Urnieta Dendaldegi kalean dagoen salmenta-gunean jendea zain dago atarian. Xabi eta Carlos Rosco anaiek txerriki-salmenta gunea daukate bertan, eta oso estimatua den urdaiazpiko bikaina erostera bertaratzen da jende asko. Are gehiago, Gabonetan. Poltsak beteta irteten dira bezero gehienak, produktu ona erosi duenak erakusten duen

aurpegi alaiarekin. Pozik dira bi anaiak, hori lortzen dutelako. Carlos, zaharrena, 2004an hasi zen familia-negozioan (39 urte ditu, egun), “enpresa lau lagunek osatzen zutenean: aita, ama, lehengusua eta osaba”. Xabi, anaia gaztea, 2013an hasi zen, Carlos anaiak eskatuta, beren aitak sabeleko minbizia izan zuenean. Zenbaki handiko enpresa bilakatu da Rosco txerri-

ki enpresa. 30 langileko taldea osatzen dute egun. Erdiak Urnietan, eta beste erdiak Montanchez herrian, Extremaduran (Espainia), XX. mendeko 60. eta 70. hamarkadetan Urnietara etorri ziren roscotarren jaioterrian. Dendaldegi kaleko bildegia txiki geratu zitzaion urte batzuk atzera, eta Erratzu industria gunean pabilioi handiagoa atondu dute, HK10 hotelaren ondoan.

Urnietan txerrikiak xerratu eta urdaiazpikoari hezurra kentzeko lana egiten dute dozena bat lagunek. Prozesua, baina, Extremaduran hasten da. Carlos Rosco: “Lehortegi bat daukagu han, eta bertan ontzen dugu gero hemen saltzen dugun produktua. Txerriak erosten ditugu, hango bazkalekuetan ezkurak jaten uzten ditugu, eta, denbora-epe jakin baten ondoren, hiltegira eramane. Produktua ondu, eta urdaiazpikoa eta beste hona ekartzen ditugu, hemen hezurra kendu eta xerratzeko”.

Kopuru batzuk emateko eskatu diegu bi anaiei, fakturazioaren inguruan. Carlosek hartu du hitza: “Kopuru zehatzetan sartu gabe, biltegian egunero 5.000 eta 6.000 pakete prestatzen ditugula esan dezaket, bakoitza 100 gramokoa. Urdaiazpikoei dagokionez, Erratzuko pabilioian 3.000-4.000 urdaiazpiko izango ditugu, baina Montanchez-ko lehortegian 80.000 ale baino gehiago”.

Kopuru ikaragarriak, ezta? Xabi Rosco: “Zerekin konparatzen duzun... Ez dut uste beldurtzeko moduko kopuruak direnik. Esan nahi dut, industria honetan gu baino askoz gehiago ekoizten duten enpresak daude. Ez dira

gurea bezalako enpresak, guk artisau-lana egiten baitugu. Hala egiten duen Gipuzkoa osoko enpresa bakarra gara. Haiek erabat industrializatuak daude, gu ez. Enpresa handiek epeak txikitzen dituzte, guk egokitzen jotzen dugun epea uzten diogu txerriari, hazteko, eta txerrikiari, ontzeko”. Zenbat denbora behar du, bada, txerriak, egoki hazteko, eta txerrikiak, egoki ontzeko? Xabi Rosco: “Askotan txerri bat jaiotzen denetik, merkaturatzen duzuneraino, bostzazpi urte pasa daitezke”.

Lana txukun egin zaleak dira Rosco anaiak. Bezeroari gertuko tratua eman zaleak dira, jakin bai baitakite hori dela beren negozioaren giltzarri. Xabi Rosco: “Negozioa gakoaitak utzitako oinarria izan da. Gertuko tratua bezeroarekin, eta prezioa eta kalitatearen arteko lotura ona. Bezeroa ondo zaindu dugu beti. Ez bazaio produktu jakin bat gustatu, ba beste bat eskaini trukean. Bezeroaren iritzia ona da gure motorra”.

Urdaiazpiko mota guztiak ekoizten dituzte, eskaeraren arabera. *Just in time* delako formula komertziala erabiltzen dute, eskaeraren barnean. Carlos: “Salmenta kopuru historikoa jakin bat daukagu, eta horren baitan badakigu, gutxi-asko, zenbat ekoiztu behar dugun, baina normalean eskariaren arabeko produkzioa egiten dugu. Zeozer gehixeago, beti, badaezpada”. Urdaitegiko bezeroak sos dezente ordaintzen du, produktuen truke, eta gehienak itzuli egiten dira dendara. Honatx, horren arrazoia, Xabi anaia gazteak azaldu: “Bezeroak gure produktua berezia, ezberdina dela daki. Badaki familia edo lagunekin konpromisoren bat badu, gure produktuak erositik lasai egon daitekeela. Produktu eroso da, gainera: ireki eta jan, ez da besterik egin behar. Ez duzu sukaldean aritu beharrik, ezta ezer zikindu behar ere. Kulturalki joera handia dago hemen urdaiazpiko ogitarteko txiki bat jateko”.

Carlos anaiak nabardura garrantzitsua egin du: “30 bat urtetik hona urdaiazpikoa aberats familien elikagai izatetik denen eskura dagoen produktua izatera pasa dela esango nuke. Hamarkada batzuk atzera, alkatearen etxean, dirudunen etxean



Frantzian saltzen dute asko, eta Ostalaritzan geroz eta salmenta handiagoa dute. AIURRI



Biltegi bana dute Urnietan eta Extremadurako Montanchez herrian. AIURRI

bakarrrik ikusten zen urdaiazpikoa, gaur egun edozein lekutan". Beren dendan txerri beso iberikoko 100 gramoko 20 pake- te 60 eurotan saltzen dituzte, "hiru eurotan unitate bakoitza. Merkatal gune handietan ere bost euro inguru balio du unitate batek".

Frantzian saltzen dute asko, hainbat merkatal gune handietan, "baina bezero partikularrak ere asko. Ostalaritza sektorean ere gero eta salmenta handiagoa dugu", dio Carlosek. "Ahoz aho-koak arrakasta handia du gure negozioan. Norbaitek probatu, eta haren senide edo lagunak, gure produktua dastatu ondoren, dendara etortzen dira produktua erostera. Bezeroa kartara zaintzen dugu. Berak esaten du zer duen gustuko, zenbat diru gastatu nahi duen, eta horretan guk produktu jakin bat saltzen diogu".

Saskiak saltzen hasi izana, irizpide horren erakusle: "Jendeak gure urdaiazpikoa du gustuko, baina askok eskatu ziguten saskiak egiteko urdaiazpiko

horrekin. Urdaiazpikoa da guztiaren erdigune, baina urdaiazpikoa aberasteko turroia, ardoa, olioia eta beste hainbat produktorekin saskiak saltzen hasi gara. Bezeroak eskatuta".

Negozioa, lana eta inbertsioa

Galdetzea erraza da. Zenbat diru mugitzen ote dute Rosco anaiek beren negozioan? "Kopuru zehatzetan sartu gabe, fakturazio bolumena handia dela esan genezake. 30 laguneko enpresa bat gara, derrigorra da fakturazio ona edukitzea", Carlosek. "Arriskuak dituen negozioa ere bada, ez pentsa. Orduan eta gehiago saldu, gero eta mailegu gehiago eskatu behar dizkiegu bankuei. Kapital zirkulatzailea handia da, bezero askok 30, 60 edo 90 egunera ordaintzen dutelako. Pabilioi berria erostea ere ez da merkea izan". Garai onak bizitzen ari dira orain, baina txarragoak bizi izan dituzte. Carlos: "Aitak Extremadurako lehortegia 2004an altxa zuen, eta 2008an krisi ekonomikoa latza izan zen. Maileguak ordaindu beharra,

interes handiak... Une kritiko samarra izan zen hura".

Pandemia berarekin ere komeria franko. Xabi Rosco: "Buru astindu behar izan dugu, saltzeko, negozioa dibertsifikatu, ostalaritzako iturria itxi egin zelako. Etxeetara banatzen hasi ginen, halako lote edo sorta bereziak, 30 euroren truke. Bezeroari erosketa erraztu, beti, hori izan da politika". Irabazien inguruan ere honako hausnarke- ta egin du anaia gazteak: "Egin- dako inbertsioa gure poltsikoe- tara itzultzen denerako denbora tarte handia pasatzen da. Ezkur- urdaiazpikoa da gure produktu estimatuena. Zortzi-bederatzi kiloko pieza batek 400 bat euro balio dezake, baina txerria erosten duzunetik pieza hori merkaturatu arte bost edo zazpi urte pasa daitezke".

Ordu asko sartutakoak dira bi anaiak, baina, egun, konfor- me dira beren egunerokoarekin. Xabi: "Hobeto bizi gara azken urteetan, baina sasoi gogor sam- rarrak bizi izan ditugu. 10-11 orduko lan egunak, urte askotan.

Orain 8-9 ordu aritzen gara, askoz hobeto". Carlosentzat, lanbideaz gain, afizioa ere bada txerriki-salmenta: "Gustura aritzen naiz lanean, eta horrek asko balio du. Beti sortzen dira arazoak, lanean, etxean... Baina langile eta lantoki guztietan bezala".

Dauzkaten bezero ezagunen izenak emateko eskatu diegu bi anaiei, baina nahiago izan dute xehetasunik ez ematea, erosleen anonimotasuna babeste aldera. Aiurri aldizkariak egindako bisitan, ordea, Reala futbol taldeko jokalarientzat prestatutako hainbat opari poltsa prestatzen ikusi ditugu langileak. Horixe, Roscotarren negozioko bezero ezagunenetako bat.

Hirugarren belaunaldiko euskaldunak

Rosco familia oso ezaguna da Urnietan, abizen hori duten 100 lagun baino gehiago bizi dira herrian. Beren urnietartasuna- rekin harro daude Xabi eta Car- los, abizenak herrian duen in- darrarekin: Carlos: "Gure abi-

zena Urnietan prestigio marka bat dela esango nuke. Hirugarren belaunaldiko etorkinak gara, gure aita gaztetan etorri zen Urnietara, mende erdi atzera, etorkin asko bezala. Gure gura- soek ez zuten euskara ikasteko aukera eduki, mugatuago zeuden, eta beste garai bat zen. Gu na- tural mintzatzen gara euskaraz, ikastolako umeak gara, eta be- zeroak euskaraz hitz egiten ba- digu, geuk ere euskaraz, noski". Xabi, anaia gaztea: "Guretzat garrantzitsua da gure etxera etortzen denari tratua euskaraz eskaintzea. Saltzaile eta eros- learen artean konfiantza sortzen bilatzen dugu, eta euskara ezin- besteko osagaia da lan horretan. Urnietatik kanpo sarri gertatu zaigu, urnietarrak garela esan, eta solaskideak "hara, hori ur- daiazpikoaren herria da, ezta?". Ba hori da gure enpresa. Zigilu bat da guretzat".

Dendara hurbildu, eta rosco- tarren txerriki-produktu goxoak dastatzea baino ez zaizu geratzen, irakurle, artikulua hau irakurri ostean.

gozotegia

Gabon zoriontsuak!

arriti





Zumea kalea, 18. ANDOAIN. 943 593 777

“Migrazioaren errailetara sartzen lagundu digu ikuskizunak”

NAHIKARI SANCHEZ ETA ANE ANZA AUKERAN DANTZA KONPAINIA

Bidaia intimo bezain gogorrean murgilduko dira ikus-entzuleak, aretotik atera gabe. Soilik, gorputzaren mugimenduaren bidez



Nahikari Sanchez eta Ane Anza dantzariak. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Mende laurdeneko ibilbidea betetzear, obra berria ondu du Aukeran Dantza Konpainiak: “Migratzaileak”. Konpainiako dantzari dira Nahikari Sanchez eta Ane Anza, eta abenduaren 18an, Migrazioaren Nazioarteko Egunean, saio irekia (*Work in progress* gisa ezaguna dena) egingo dute Saroben, iluntzeko 19:00tan hasita.

Migrazioa gorpuztu duzue ikuskizunean.

Ane Anza: Migrazioak bere horretan mugimendua eskatzen du; toki batetik bestera lekualdatzea. Bada, ideia hori adierazi nahi dugu geure gorputzaren bidez, izan ere, migrazioak mugimendua dakar, ezinbestean. Bizitzako une askotan gertatzen den zera da, ez da soilik mugatzen hitz hori aipatzean burura datorkigun egoera jakin horretara. Egia da eztabaida horrek pisua duela kontakizunean, egun, pil-pilean dagoen auzia delako.

Nahikari Sanchez: Askotan galdegin diogu geure buruari ea zer den migrazioa, eta guk geuk ere ez genekien nola definitu. Orduan, hori abiapuntu hartuta ondu dugu ikuskizuna.

Nondik migratu du ideiak?

A.A.: Afrikan ibili nintzen bidaia batean, eta, harrezkero, nigan interes handia eragin duen gaia da. Guztiei iruditu zitzaigun jorrazteko gai interesgarria: asko sentitu dezakegun gaia da, finean.

N.S.: Eta modu askotan. Ez da istorio zehatz bat, estampa asko daude.

Hortaz, zuk, Anek, bota zenuen amua eta guztiek batera ekin zenioten bideari.

N.S.: Hori da, eta Oier Guillan idazlea eta ikuskizuneko gidolaria izan dugu bidelagun, sormen-prozesuaren ardatz. Zuzendari artistikoa da obra honetan; gu ezagutzen ahalegindu da guretzat migrazioa zer den ulertzeko. Horixe da, hain zuzen ere,

islatzen dena gure ikuskizunean. Gehiago ala gutxiago, guztiok gara migranteak.

A.A.: Proiektuaren norabidea markatzen lagundu digu: zer kontatu eta nola. Galdera asko eginarazi dizkigu eta horietan oinarritzen gara oholza gainean mugitzen garenean. Ikuskizunean publikoak ere bere interpretazio pertsonalak egingo ditu, baita hausnarketa berriak bururatu ere. Horrez gain, Yorok ere pisu handia izan du sorkuntza-proze-



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON !

Gabonak heldu dira
berriz oporrak
laister Olentzero
ta gero erregeak

Familiakin egon
afari bazkari
aukera eman behar
urte berriari



ALAIA SILVA



DOINUA: AL. ZAPOTXIN!
EGILEA: HEGOI LIZASO (DBH 2)

suan; pateran etorri zen Senegaldik. Hori dela eta, luzez aritu gara elkarrizketan eta bere bi- zipenek asko bideratu dute kontakizuna.

Oier Guillan Oreretako idazle eta aktoreak ipini ditu hitzak; zuek, mugimendua.

N.S.: Gu ezagutzen saiatu da. Horretarako, saio jakinak prestatu ditu: uztailean ekin genion; egu- nero etorri ginen astebetez. Horrez gain, etxerako lanak bidaltzen zizkigun, ariketak. Ez genuen ondo ulertzen zein zen bere asmoa, orain gutxi, gidoiaren berri izan arte.

A.A.: Izan ere, gurekin zenbait hilabetez egindako lanketan oinarritu da gidioa idazteko. Gure erosotasun-esparrutik atera gaitu, nolakoak garen ikusteko. Oso erraza bihurtu da Guillanekin lan egitea. Hamar ikuskizunetik gora ditugu, baina lehen aldia da horrela egiten dugula lan.

N.S.: Inprobisaziotik asko du sormen-prozesuak. Su txikian egiten du lan Guillanek, eta konfiantza handia dugu beregan. Dantzarekin lan egin duen lehen aldia da, eta berarentzat ere erronka izan da.



Migratzaileak ikuskizuneko pasarte bat. AUKERAN

Askotariko arrazoiak medio migra- tzen du jendeak. Horiek denak bildu al dituzue obran?

A.A.: Gure esperientziak erabili ditugu lanketa egiteko. Nork bere migrazioa du, etengabe gaudelako aldaketak bizitzen, eta horiek ematen dute eskarmentua. Ideia horrek lagundu digu emanaldia sortzen. Koreografia ba-

koitzean migrazio mugimendu bat ikusten da.

Aretotik atera gabe migratuko duzue gorputzaren mugimenduaren bidez. Nola, baina?

A.A.: Beti ahalegintzen gara zerbait berria eskaintzen. Halere, konpainiaren bideari jarraiki, dantza tradizionala eta garaikidea uztartu ditugu.

N.S.: Gainera, Xabier Aburruzagak ipini dio musika gure mugimenduari, eta Karlos Solanok argiztatu ditu gure dantzak. Bestalde, Oscar Amendarizek egin ditu jantziak eta Bapobapo ekoizpen etxea ere ikuskizun honen atzean dago.

Munduko hainbat lekutara egingo al duzue salto?

N.S.: Sarobe arte eszenikoen ohol- tzatik ateratzen saiatuko gara. Izen-abizenak dituen leku batera baino, egoeretara egingo dugu salto; itsaso zabalera, adibidez.

A.A.: Migrazioak bere ibilbidea du, eta hori irudikatzen ahale- ginduko gara, leku batetik bes- terako saltoa, hain justu.

Zaila al da horrelako kontzeptu abs- traktuak ikuskizun batean irudika- tzea?

N.S.: Nire ustez, ez. Oierren hitzak gure esparrura ekarri ditugu, dantzara.

A.A.: Migrazioa ez da ideia zurrun bat, nork bere harremana dauka migrazioarekin.

Jendeak hausnartzea duzue helbu- ru. Alabaina, zuei ere eman al dizue zer pentsatua?

N.S.: Lehen, urrutitik bizi genuen eztabaida, baina gaian sakontzen

lagundu digu honek. Egon, beti egon da afera gurean, baina mi- grazioaren errailetara sartzen lagundu digu ikuskizunak.

A.A.: Makina bat egoerarekin bat egiten ahalegindu gara, eta ho- rien lekuan, azalean ipintzen, gorputzaren mugimenduaren bidez.

Konpainian hasi zinenetik, Nahika- ri, hutsetik abiatutako lehen proiektua da. Nolako izan da sortze-pro- zesua?

N.S.: Hori da, eta prozesua berria da. Ikuskizunak prestatu izan ditugu, baina, ez, horrelakorik, inondik inora ere. Guztia egin dugu hutsetik, eta gogo handiz gaude. Argi ikusi dugu sormen- prozesu batek dakarren komple- xutasuna zein konpromesua. Profesionalak dira lantaldeko gainerako kideak. Eta bidean horrelako lankideak izatea izu- garri izan da, inoiz eskura izan ez ditugun baliabideak bermatu dizkigute. Guk ere maila eman nahi dugu, hortaz.

Noiz ikusiko du argia ikuskizunak? Martxoaren 12an eta 13an egin- go dugu estreinaldia, DFeria jaialdian. Donostiako Victoria Eugenia antzokian izango da.

**Zentzuz erosi.
Ondo informatu zaitez.
Ezagutu zure eskubideak.
Baztertu estereotipoak.**

**Zeu zara
zure
influencer
onena.**

#KontsumitzenJakin

kontsumoBIDE
KONTSUMO BIDE EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana

EUZKO JAURLABITZA GOBIERNO VASCO
EUSKAL GOB. EUSKAL GOB.





2022ko egutegia osatuko duten irabazleak, epaimahai-kideak eta Udal ordezkariak artxiboan egindako sari-banaketa ekitaldian. Andoaindarrak eskura dute egutegia, dohainik, Ataria zerbitzuan. AIURRI

Egutegiaren arrakasta

Andoaingo Udala 2017an hasi zen herrikideek egindako argazkiekin egutegia lantzen, eta hasieratik arrakasta handia izan du argazkizaleen artean, baita herrikideen artean ere: aurten, lau mila udal egutegi argitaratu dituzte. Aurrekoetan baino mila gehiago

Xabier Lasa ANDOAIN

Udal Artxibategiko instalakuntzetan egin zen sari-banaketa ekitaldia. Hamar irabazleen balorazioak:

- **Urtarrila, "Afrikatik Basterora" (Juan-car Lazkano):** "Argi neukan migrazioa behar zuela izan argazkiaren gaia, Bastero bezalako leku esanguratsu batean, gainera, eta Samuel nigeriarrari komentatu nion, ea modelo gisa azaldu nahi ote zuen, beste noizbait ere prestatu izan zait-eta. Argazkia estenopeikaren teknika erabiltza aterata dago".
- **Otsaila, "Lebiton erraldoi eta buruhandi konpartsa" (Asier Lopez de Arregi):** "Konpartsaekin azkeneko aterata nintzen egunean, Goikoplazan geundela, une batean Elizondora sartu nintzen. Irten nintzenean, jende inguratutako konpartsari argazkia ateratzeko une polita topatu nuen, eguraldia".
- **Apirila "Oria ibaiari begira" (Roberto Trutxuelo):** "Andoaindarraren ohitura izaten da maiz Oria ibaiari begiratu ematea, ea nola datorren ikusteko. Zer esanik ez egun hauetan! Bada, euri-egun batean, halaxe topatu nituen bi pertsona aterkia

eskutan zutela. Instante hori argazkira eramatea pentsatu nuen".

- **Maiatza, "Cotidiano" (Alvaro Lopez):** "Correoseko egoitzaren atarian sartzeko zain nengoela, andoaindarrak egunerokotasuneko gauzetan jarri zitzaizkidan begien aurrean. Bai aurreko etxe-ko horman dauden argazkietako pertsonak, bai andoaindarrak kalean. Horixe erretratatu nahi izan nuen".
- **Ekaina, "Andoaingo axerriak" (Ane Jalón):** "Jaiak nola ospatzen ditugun nahi nuen jaso, eta hain errotuta dagoen Axeri Dantzari heldu nion. Aparteko ikuspegitik aterata nahi izan nuen argazkia, azpitik alegia. Mai-tasun handiz egindakoa da".
- **Uztaila, "Bagoaz!" (Xabier Huitzi):** "Etxeberrietako semaforoan topatu nuen Sidecar motoa, tramankulu berezia. Nire artean pentsatu nuen: "Hau da vintage-a, herriko auzorik vintage-enean!". Semaforo-gorriari zela, eta kamera eskura neukanez, unea probestu nuen argazkia ateratzeko".
- **Abuztua, "Ohiturak" (Vanessa Pelaez):** "Aita, ahizpa eta hirurok ohitura dugu mendi txangoak



GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ONI

AMABI

haur eta gazte jantziak
0-16 urte

943 57 31 62

Zumea kalea, 15 - behea. ANDOAIN



Urtarrila. "Afrikatik Basterora".
© Juanan Lazkano Ajamil.



Otsaila. "Lebiton erraldoi eta buruhandi konpartsa".
© Asier Lopez de Arregi Etxenike.



Martxoa. "Lamia pozetan".
© Uxue Botas Peñin (ez zen ekitaldian egon).



Apirila. "Oria ibaiari begira".
© Roberto Trutxuelo García.



Maiatza. "Cotidiano".
© Alvaro Lopez Arroyo (Etxekoek jaso zuten saria).



Ekaina. "Andoingo axerriak".
© Ane Jalon Zatarain.



Uztaila. "Bagoaz!".
© Xabier Huitzi Belamendia.



Abuztua. "Ohiturak".
© Vanessa Peláez Martínez.



Iraila. "Mendien artean".
© Alicia Muñoz Martín (ez zen ekitaldian egon).



Urria. "Kontu kontari".
© Angel Carrasco Errazkin.



Azaroa. "Begirada batean".
© Esther Pinto Olano.



Abendua. "Gure Olentzero".
© Miren Candelario Iparraguirre.

egiteko, eta Buruntza aldera jotzen dugu gogoko dugun para-
raja baita. San Roke ermitari
begira daudela atera nien ar-
gazkia, aitari eta ahizpari".

• **Urria, "Kontu kontari" (Angel Carrasco):** "Umeekin Bastero inguruan egunero ibiltzea egokitzen zait, eta Makaldegia ondoan maiz ikusten dut koadrilla hori bankuan eserazi. Hamar bat minu-
tu izaten dira eguzkiak bete-
bete ematen diela, eta aur-
pegia eskura dutenarekin ba-
besten dute. Argazkia apro-
sa izan zitekeela esan, eta
baimena eman zidaten".

• **Azaroa, "Begirada batean" (Esther Pinto):** "Lagunei aipatu nien zein zen nire asmoa, Andoain-
go paraje desberdinetan argaz-
kiak ateratzea, alegia, eta mo-
delo gisa prestatu zitzaizkidan.
Herriko paraje polit batean,
bankuan eserarazi eta konten-
plazioan jarri nituen".

• **Abendua, "Gure Olentzero" (Miren Candelario):** "Errotutako usadioa
da; atzean jende askoren lana
dagoela argi dago. Bestalde, beti
iruditu izan zait oso ondo da-
goela karakterizatuta Olentzero".

Argazkiak: ©Bastero Kulturgunea

Gabon
zoriontsuak!

www.txapelasybordados.com
www.txapelaketabordatuak.eus

KeiNU

Kale Nagusia, 12. ANDOAIN. 637 283 224
keinuandoain@gmail.com keinu.andoain

Izan originala ezkontzetan!
Oparitu Keinuko txapeltxoa gonbidatu bakoitzari!!!





Neguko arropa eramatea gomendatzen dute, eguraldia medio. Argazkia aurreko edizioetan ateratakoa da. ALAINPAULIS

Adarramendira, gauez

Zanpatuz mendi elkarteak Adarramendiko gaueko igoera antolatu du, datorren ostegunerako (abenduak 23). 18:00tan abiatuko dira Besabitik, eta San Juan plazatik kotxez iqotzeko aukera izango da 17:30ean hasita



Irteeraren afitxa. ZANPATUZ

Andoni Urbistondo URNIETA

Zanpatuz-ek bere egutegian ohikoa bilakatu den irteera antolatuko du berriro Gabonen atarian: Adarramendiko igoera, gauzez. Abenduaren 23an, arratsko 18:00retan, Besabitik abiatzea da asmoa, eta Adarrara ilargi betearen argia aprobetxatuz igo. Elkartzeko hitzordua herriko plazan izango da, 17.30ak aldera, ahalik eta kotxe gutxien igoitzeko. Besabin denak elkartu, eta mendira. Antolatzaileek bu-

ruko argia edo frontala, eta neguko arropa eramatea gomentatzen dute, eguraldia medio.

Zanpatuz mendi taldea, 2022ra begira


Zanpatuz mendi taldea zuzendaritza batzordeak hainbat bilera egin ditu azken asteetan, 2022an zer eta nola egin, administrazio alorreko hainbat kontu aztertzeaz gain. Bilera horien lehen bi emaitzak, federatu txartelen gaineko informazioa.

MENDI FEDERAKUNTZAKO 2022-ko TXARTELEN TARIFAK TARIFAS CARNET DE FEDERADO DE MONTAÑA 2022			
ATERPERIK GABE (EMF) SIN REFUGIOS			
MAJORES, Nazioak 1984/10/01-2004/10/01			
NACIONAL NACIONAL	PIENES FRANCIS PIENES FRANCIS	MUNDIALA MUNDIALA	
79.62	74.08	122.02	
BENEFICIARIOS			
Seguritate federatibo mugatu: ez du erabateko benetaziorik S/N PYRBAKIA			
71.07	64.52	120.47	
MAJORES DE 65 AÑOS Nazioak 65 urte baino gehiagakoak 21/12/1997 (exklusiboa)			
59.44	75.59	113.24	
BENEFICIARIOS			
Seguritate federatibo mugatu: 65 urte baino ez du erabateko benetaziorik			
51.28	64.73	108.08	
JUVENILES Nazioak 2005/01/01 - 2004/10/01. Ez gertatu PYRBAKIA ezarri 8.30			
21.04	37.31	75.44	
RECREATIVA Nazioak desagatuak 2016/12/01 INKATSE Nazioak 2008-05-01 - 2004/10/01. Ez gertatu de txartelaren			
14.89	32.14	70.29	
SUPLEMENTOS			
LOKAL ALPINO E FINOIN (N. 13.25 €)			
SINON: 41.67 € - OTI: 17.54 € - OPIKORAK: 1.679.39 €			
ATERPEAK BARNE (FEDME) CON REFUGIOS			
HITZELAK, PYRBAKIA 1984/10/01-2004/10/01 Auzok			
NACIONAL NACIONAL	PIENES FRANCIS PIENES FRANCIS	MUNDIALA MUNDIALA	
91.28	104.83	164.90	
BENEFICIARIOS			
Seguritate federatibo benetaziorik benetaziorik PYRBAKIA-ek GABE			
83.02	98.47	154.62	
65 URTE BAINO GEHIAGAKO HITZELAK 2007/12/31 baino lehenagoko jaiak			
71.59	87.04	129.19	
65 URTE BAINO GEHIAGAKO ONIBAZULAK / Seguritate federatibo 65 urte baino gehiagako benetaziorik benetaziorik			
63.23	79.48	114.83	
JUSENULAK ONIBAZULAK - 2007/12/31 Auzok, PYRBAKIA ezarri benetaziorik 8.30 gertatu lehenagoko			
27.44	47.91	87.04	
AIGIALDI TXARTELA 2008/05/01 Auzok 2008-05-01 - 2007/12/31 Auzok Nazioak benetaziorik benetaziorik			
57.89	33.34	71.89	
GEHIGARRIAK			
ALPINO E/N FINOIN (N. 13.25 €)			
SINON: 41.67 € - OTI: 17.54 € - OPIKORAK: 1.679.39 €			

eta irteera baten proposamena dira. Federatu-txartela berritze-ko epea zabalik dago, baina aldaketa batzuekin. Kontu ko rronte aldaketa egin du mendi taldeak, eta aurrerantzean Kutxabank banketxean izango ditu sosak. 150 lagunene txartelak tramitatzeak ahalegin handia eskatzen die mendi-taldeko ki-deei, eta aurrerantzean, eta tramitazio lanak erraztu asmoz, hilabeteen behin egingo dira zeregin horiek (hilabete bakoitzeko 15. egunean). Abenduaren kasuan 23a izango da tramitazioa egiteko azken eguna. Hurrengo urtarrilak 15a izango da. Bazkide guztiek beren posta elektronikoan jaso dute oharra, bete beharreko pausoak azalduta.

Txartelen tramitazioa


Kronikatxo honetan, tarifen taula ikus daiteke. Txartela berri-
ritu behar duenak, eta iazko
datu berberak dituenak, nahiko-
du NAN zenbakia eta izen-dei-
turak bidaltzearekin zanpatuz@
gmail.com posta elektronikora,
ordainagiriaren argazkia, eta
aukerata den estaldura eta gehi-
garriekin batera. Txartela lehen
aldiz egingo dutenek, edo iaztik
hona daturen bat aldatu dutenek,
aurreko baldintza berberetz gain,
datuen taula osoa bete beharko
dute, gero, posta elektronikoko
horretara bidaltzeko. Gogoratu,
Urnietako helbidea ez dutenek
10 euro gehitu beharko dizkiete
taula honetan agertzen diren
prezioei.



ORMENDI KIROLAK

943 591 806

Kale Berria, 2
ANDOAIN
ormendikirolak@euskalnet.net





BURUNTZALDEAKT

Distantzia luzeko txapelketa

IGERIKETA Lasarte-Oriako igerilekuan hitzordua jarrita dago, goizeko 09:45etan. Lehiaketa honetan infantil mailakoek 2.000 metro igeri egin beharko dute eta junior zein absolutuek, berriz, 3.000 metro. Azken distantzia honetan Nora Imaz lehiatuko da eta aurreko denboraldian lortutako podiumari eusten saiatuko da.



AIURRI

Urriza eta Labaka nagusi

ERREMONTEA Binakako Txapelketako zortzigarren jardunaldia jokatu zen Hernaniko Galarreta frontoian. Urriza-Labaka bikoteak garaipen garrantzitsua eskuratu zuen Goikoetxearen eta Barrenetxearen aurka (34-40). Urriza eta Labaka 8 punturekin eta Goikoetxea eta Barrenetxea 10ekin daude. Bi bikoteak finalerdietarako sailkatuta daude.

Garaipen handiak

ESKUBALOIA Senior taldeak 8. garaipena eskuratu dute jarraian Ordiziari irabazita (16-30). Gizonezkoen senior taldeak ere garaipen garrantzitsua eskuratu du Bilboko Escolapios taldeari irabazita (42-27). Jubenil mailan, aldiz, porrotak: mutilek etxean galdu zuten Elgoibarren aurka (21-32). Neskak ere galtzaile Egiaren aurka (20-25).



UKE

Etxekoak

Gure baratzak, baserriak eta basoak.
Bertakoak, kalitatezkoak, gureak.
Gabon hauetan eros ditzagun gure ekolizleen produktuak.

Mikel Etxagirre
Gurmendi baserria, Zarautz
Lurreko bizia

Erosi geurea,
erosi Gipuzkoa!

ETXEGAR

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 16

ANDOAIN Erakusketa

"Gorri bisuala", Zalao Ipiñaren eskutik.

Ohiko ordutegia. Bastero.

URNIETA Zine-foruma

"Chica seria y responsable". Ondoren solasaldia Maitelan, Emagin eta SOS Arrazakeria eragileen parte hartzearekin. 19:30, Lekaio.

OSTIRALA 17

URNIETA Ipuin-kontaketa

Liburutegiko xaguak, 4 urtetik gorakoentzat.

17:00, Lekaio.

ANDOAIN Kontzertua

"Chica Sobresalto" Maialen Gurbindo OT 2020 telebista saioko lehiakide ohiaren emanaldia. 20:30, Bastero. 12 euro.

LARUNBATA 18

URNIETA Dantza

Aukeran Dantza konpainiaren eskutik, "Migratzaileak". Lan prozesuaren erakustaldi irekia. Elkarriketa 8-9. orrialdeetan. 19:00, Sarobe.

ANDOAIN Kontzertua

Aita Garayoa abesbatza eta Ana Belen Garcia organo-jotzailea elkarrekin ariko dira. 12:00, San Martin eliza.



La Palmaren aldeko azoka antolatu dute. AIURRI

ANDOAIN Azoka solidarioa, Kanariar uharteetako La Palmaren alde

La Palman sumendiak eragin dituen kaltetuen aldeko Azoka Solidarioa antolatu dute Andoaingo zenbait biztanleek. Azokan aurkitu ahal izango dira liburuak, biniloak (CD-DVD), dekorazio-objektuak, kirol materiala, sukaldeko tresneria, bisuteria, arropa eta oinetakoak, jostailuak, eta abar.

Abenduak 18 eta 19. 10:30etik aurrera Ondarretako jolastoki estalian.

IGANDEA 19

URNIETA Bertsoa eta musika

"Erik eta win". Bertsolariak: Unai Muñoa eta Ander Lizarralde. Musikariak: Aitor Atxega eta Imanol Kamio.

19:00, Sarobe.

ASTEAZKENA 22

ANDOAIN Pailazoak

Txirri, Mirri eta Txiribitonen eskutik, haur ikusizuna. 17:00, Bastero.

IGANDEA 26


ANDOAIN Antzerkia

"Nekane eta Koldo. Haurdunaldi testa. Bost minutu falta dira emaitza jakiteko. Guraso izateko prest ote daude?". Antzezleak Andoni Agirregomezkorta eta Itziar Urretabizkaia. 19:00, Bastero.

ANDOAIN, URNIETA Martxa

Sare herritarra ekimenak hiriburuetan ekitaldi-sorta antolatu du. Xehetasunak 2. orrialdean.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

La familia perfecta

Larunbata, 18. 19:30, 22:00.

Igandea, 19. 19:30.

Astelehena, 20. 19:30, 22:00.

Clifford

Lar. ig. 17:00.

URNIETA

LEKAI

"Chica seria y responsable"

Osteguna, 16. 19:30.



SINOPSIS



La familia perfecta

Zuzendaria: Arantxa Echevarria. Gidoilaria: Olatz Arroyo.

Musika: Pascal Gaigne. Aktoreak: Belen Rueda, Jose Coronado, Gonzalo de Castro, Carolina Yuste, Gonzalo Ramos, Jesus Vidal, Pepa Aniorte, Pepe Ocio, Maria Hervas. Herrialdea: Espainia (2021). Generoa: Komedia. Iraupena: 110 minutu.

Komedia, Rueda eta Coronado
Espainiako aktore ezagunen eskutik

Bizitza eredugarria daramala uste du Luciak, eta dena kontrolpean duela. Ezkondu zenetik, ahalegin guztiak egin zituen bere familia idealaren zaintzan. Baina dena erortzen hasten da Sara, semearen bikotea, agertzen den egunean;

neska gazte bat, askea, eta, harekin batera, familia politiko bat, Luciak bere semearentzat beti amestu zuen ideiatik oso ezberdina. Une horretatik aurrera, familia perfektua ez zela berak uste zuena ondorioztatu du Luciak.

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.bertako
igogailuak-ekin
www.bertako.eusZILDIRA JAISITAKO
OBJEKTUAK
BERRESKURATzeaNARRAPATZE
ESERAKHIDGAILIKI
ZABATIAK

305/34/7

ARABA
945 712 822
GIPUZKOA
943 903 450BIZKAIA
946 523 935
NAFARROA
948 870 917

"Ogia ez dadila falta... Ezta euskara ere!" ekimena

Andoingo Udaleko Euskara Zerbitzua familien transmisioan eragiteko kanpaina burutzen ari da

Erredakzioa ANDOAIN

Topaguneak antolatutako "Haurren aurrean helduok heldu" kanpainaren helburuarekin bat bat eginez, "Ogia ez dadila falta... Ezta euskara ere!" Andoingo Udala, Aiurri, Galardi, Ondarreta zein La Salle-Berrozpe ikastetxeak eta Aita Larramendi ikastola izeneko kanpaina egiten ari dira. Honen bitartez Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek eskuorri bat eta ogi txiki bat jasoko dituzte gelan, gero etxera eramateko eta familian konpartitzeko. Euskara-zerbitzutik adierazi dutenez, "ogiaren sinbolismoa erabili dugu adierazteko ogia egunerokoa den bezalaxe, euskarak ere hala behar lukeela". Kanpaina honen bitartez haurrak euskararen murgiltzeko eta hizkuntzaren transmisioa egiteko gonbita luzatu zaie Andoingo familiei.



Ikasle bat ogia eta eskuorria, eskuan.

Eskuorrian hainbat aholku jasotzen dira, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta arabieraz. Aldi berean, urtariletik ekainera bitarteko egutegia ere badago, eta hilabete bakoitzerako erronka bat jartzea proposatzen zaio familiari.

Danobat eta Latz kooperatiben lehiaketako irabazlea


"Euskaraz izango gara" da Danobatgroup industria taldeak etorkizunerako aurreikusten duen agertokia

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko urteetako bidea jarraituz, Danobatgroupek lantegiak dituen herrietan lehiaketa antolatu du eta aurtengo irabazlea Aitzol Beristain da. Zorionak, Aitzol, zuretzat da Bizkaiko zuhaitz-etxe batean gaua bi lagunentzat.

Danobatgroup industria taldea espezializatuta dago makina-erreminten fabrikazioan, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako garapenetan, giltza eskura erako ekoizpen sistemetan eta zerbitzu teknologikoki aurreratuetan. Danobatgroup kooperatibaz gain, Danobat, Goiti, Soraluze, Goimek, Latz eta Ideko kooperatibek osatzen dute taldea.

Danobatgroupek harreman sare zabala du eta lanerako hizkuntza asko erabili eta kudeatzen ditu. Baina Euskal Herriko lan-



Aitzol Beristain irabazlea. DANOBATGROUP

tegieta langile, hornitzaile, eta abarrekin euskara erabiltzeko erabakia hartua du, eta horren adierazgarri dira euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak eta lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak, bikote!

Azaroaren 28an bete zenituzten 57 urte ezkondurik!!! Badaukagu non ikasi... Eta abenduaren 1ean amonak 79 urte. Jarrai dezazuela urte askotan bizitzaz elkarrekin gozatzeko. Zuen iloben eta seme-alaben partez zorionak, bihotz-bihotzez.



ANDOAIN

Enara Arevalo

Garcia 7 urte egingo ditu hilaren 20an. Etxekoan partez txokolateko muxu handi bat. Maite zaitugu!



ANDOAIN

Zorionak, Maddi




Hilaren 22an, 12 urte beteko dituzu! Ea zuretzako aurkituzten urtea bilakatzen den! Muxuak. Etxekoak.



ANDOAIN

Zorionak, Ane

Abenduaren 14an 12 urte! Zorionak eta beti bezain alai jarraitu, muxuak etxekoan partetik.





IRITZIA

PEIO MANTEROLA PAVO ANDOAIN

Eguberrien esentzia

“Zeuek Olentzero sorbaldan jaso, guk maindire zuri hau zabaldu eta goazen!”. Abarka deseroso haiek jantzi eta herria zeharkatzen genuen olesean. Azken bi urteotan gaizto den ohiko eskola-ekintza hura gaztaina zimelen usain artean amaitu ondoren, lotsa-gabe txapela pasaz, sosa batzuk zorroratzeko asmotan, tabernaz-taberna jarraitzen genuen kantuan. Arrastian, aldiz, Olentzero zertxobait limurtzeko gogoz, eskuak goxatzen zituen kriseiluaz bidea argitu izan nien ikazkinari eta Mari Domingiri. (Tira, azken hori ikastolak antolatzen zuen ekintza izanik, irakasleekin puntu batzuk irabazteko asmoz ere egiten nuen, ez baina izan inoiz puxtarriz soberan ibili den horietakoa). Alaitasunez hartzen nuen Eguberri eguna.

Batek buelta asko eman die-zazkioke, ordea, emozioz betetzen duten gaiei. Maiz, nork bere sentitzen duen hori zer den ulertu ez eta barne-haserreak ere sortzen direla esango nuke. Ni bederen, horietakoa naiz, kontu batzuei hamaika buelta eman, sumindu eta erantzun gabeko sentipenei muzin egiten dienetakoa, alegia. Nola zitekeen ideologikoki baztertu nahi nuen guztiak –hots, pentsamendu kristauaren nagusitasuna, kontsumo gehiegikeriak, eta abar– nigan halako irrika piztea?

Esentzian, *Navidad*-eak eta Eguberriak berdinak dira. Kon-



@MUAK_EUS

tsumo mugagabeak hartu ditu eta horretantxe oinarritzen dira. Halaber, bere kutsu erlijiosoak kantuetan, jaiotzetan, folklo-rean... Bizirik dirau. Areago, ospatzen dena Jesusen jaiotza da, soil-soilik. Sinisdun batek hala esan zidan: “Kristautasuna asko kritikatzan du jendeak, erlijiorik gabe Olentzero ez litzateke existituko”. Hori gutxi balitz, barrenak zartatzen dizkit pentsatzeak haurrek jasoko dituzten oparietako eduki erdal-dunetan, euskarak egungo jostailuetan zein bestelako aparailuetan duen presentzia urrian eta, nola ez, umeen artean sortuko diren mailaketetan.

Itxaron.

Esentzian, *Navidad*-eak eta Eguberriak ezberdinak dira. Hitzetan dago gakoa. Latinezko *nativas* hitzetik datorren *navidad*-ek, *nacimiento* esan nahi

du; beraz, Jesusen jaiotza omentzen du hitzak. Ostera, “Eguberri”-k egun berriak dakartza gogora. Hala nola, urteko gau luzeenaren ostean hazten hasten diren denbora-tarte argitsuak oroitarazten dizkigu eta, noski, egunen mardultzea urte berriaren seinale da. Urte eta eurite berriek dakartzaten uztak opa-roak izango direnaren esperantza gordetzen da hitzetan. Akaso kasualitatea izango da, baina Euskal Herrian badira hainbat toki non Urteberri egunez ura jaso eta atez-ate banatzen baiten (Lekarozen, esaterako).

Eta Olentzero, zer? Gure “Aita Noel” maitea. Bere izenaren esanahia “onen-aro” delakoan gordetzen dela diote aditu gehienek (garai onak datozela esan nahi omen du). Akaso hori da Euskal Herriko hainbat txokotan

Gabon-gauetz, Olentzero izeneko enbor bat erretzearen arrazoia, zeinak urteko iluntasunik luzeena piztuta irauteak garai onak datozela adierazten baituen: bai uztaz, bai osasunez. Ez da ustekabekoa gure jentila ikazkina izatea edo beti pipa ahoan duela ibiltzea. Ura eta sua, euria eta eguzkia, ezin albo batera utzi gosea pasatzea zer den jakin bazekitenek.

Esentzia bera– historia eta etorkizuna, sinesmenak eta ohitura zaharrak– gure hitzetan daudela adierazi besterik ez dut egin nahi. Pertsonalki, Olentzero, kristautasuna ailegatu aurretik enbor magiko eta pagano bat izan zela sines-tea gustatzen zait, gerora askotariko mundializazioaren eraginez eraldatzera behartua ikusi dena. Josuren jaiotzaren berri ematera bordatik jaitsi zenaren meritua ere esleitu izan zaio eta, haur literatura umeak beldurtu zein eskarmentatzeko tresna zenean, ikazkin basati hark gazteak irensten zituela zioen kondairak. Gaur, akaso, hedabide espainolek adierazten duten moduan, “*El Papa Noel vasco*” izango da, baina gizarteak hala baldintzatuta. Gainera, garaietara egokituta, kontsumoan oinarritutako pertsonaia ez-ezik, “demokrata” bat dugu, lehen, jentil gaizki hezi bat zena, zuzenbide estatu baten moduan legea betearazteko tresnak

baititu: “Jarrera ona ez baduzu Olentzeroren ikatza jasoko duzu”. Halere, pertsona behartsuak eta aberatsak ez dira modu berean zigortzen edota saritzen. Bilbon modelo saiakera ere egin izan du ikazkinak, eta, aurki, youtuber sartuko da (jada, hala ez bada). Edonola, Olentzerok “onen aro” izaten jarraitzen du.

Horrenbestez, euskaldunok ez gara bakarrak, baina badugu identifikatzen gaituen elementu ezberdingarrik. Agian, gizarte-alderdiak gu bezalako “barbaroongan” txertatzeko gure ohiturak erabili behar izan dituzte ala, ziur aski, guk baliatu ditugu aitzinako paganismoaren kondarrak historian jazotako zein jasotako globalizazio aniztetan irauteko. Horixe bera da ni eta beste asko emozioz betetzen gaituena: gustuko ez ditugun alderdiak baztertzeko indarra ez izan arren, Eguberrietan euskaraz egiteko eta jai hauetan euskal hitzen inguruan biltzeko aukera dugula. Hala bada, garai trakets hauetan ere gure enborrak piztuta iraun dezala, hori baita Eguberrien eta etorkizuneko aro onen esentzia.

**GARAI TRAKETS
HAUETAN ERE
GURE ENBORRAK
PIZTUTA
IRAUN DEZALA**

Ernaitza liburudenda

Gurean topatuko dituzu:

- Durangon aurkezten diren nobedadeak.
- Kultura bonoaren onurak.
- Joku, jolas eta opari gaiak.

Eguberrietako eskaintza bikaina

Zumea, 9. Andoain. 943 592 459
ernaitza@yahoo.com